

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA

2017ko

TXOSTENA



Pertsonengandik gero eta hurbilago



**Cruz Roja
Gurutze Gorria**

EGINKIZUNA

Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

IKUSPEGIA

Gurutze Gorriak, izaera boluntarioa duen eta gizartean oso errotuta dagoen erakunde humanitarioa den heinean, erantzun integralak emango dizkie pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik, eta pertsona horien gaitasun indibidualak sendotuko ditu gizarte-testuinguruan.

**GIZATASUNA · INPARTZIALTASUNA · NEUTRALTASUNA · INDEPENDENTZIA
BOLUNTARIOTZA · BATASUNA · UNIBERTSALTASUNA**

TOKIKO / ESKUALDEKO 11 BATZAR

Arratiako Harana (946 736 262)

Bermeo (946 883 616)

Bilbo (944 103 984 - 944 163 183)

Durungaldea (946 309 323)

Enkarterri (946 670 584 - 946 107 008)

Ezkerraldea (944 936 560)


Gernika (946 251 988)

Lea Artibai (946 831 929)

Mungia (946 741 226)

Nerbioiko Harana (944 263 730)

Uribealdea (944 609 295 - 944 642 215)





Javier Zarraga Castro
Bizkaiko Gurutze Gorriaren presidentea



Adiskide agurgarriak:

Bizkaiko Gurutze Gorriaren 2017ko jardueraren memoria aurkeztera nator, gure azken ekitaldiko bitakorako koadernoan. **Gizarte eraldaketa** handiak markatu duen urtean **“zaugarritasun berriak”** azpimarra ditzakegu. Hauei buruz ari naiz: Soldata irabazten duten arren, hilaren amaierara heldu ezin daitezkeen pertsonak; langabezian egonda, lan mundutik gero eta urrunago daudenak; gizartean, lanean eta prestakuntzan sartzeko zailtasunak dituzten gazteak; edo aukera desberdintasunak eraginda, gaur egungo haurren garapena mugatzen duen eskolako porrota. Horrez gain, gehienetan, emakumea da zaugarritasunaren ondorioak nabarmenago jasaten dituena. Hori dela eta, 2017an, emakumeengan zentratu gara. Zoritxarrez, gure gizarteko **emakumeek** jasaten duten indarkeriaren eta diskriminazioaren lekuko izaten jarraitzen dugu eta, ondorioz, gure erakundearen konpromisoa **berdintasunaren** alde lan egitea da, esku-hartzeko ditugun modu guztietatik.

85.940 pertsonak hartu dute parte edo erabili dituzte 2017an eskainitako zerbitzuak. Lan horren guztiaren artean, azpimarratzekoak dira babes eta aholkularitza bilatzen duten **errefuxiatuekin aurrera eramandako 17.435 esku-hartzeak.** Halaber, **166.292 ordu sartu ditugu enplegu proiektuetan** eta, horri dagokionez, 830 kontaktu egin ditugu enpresekin. **727 onuradun dituen pobrezia energetikoaren alorrean** egindako lana ere azpimarratzekoa da. Horrez gain, gure ohiko eremuetan ere zenbait proiektu eraman ditugu aurrera, osasunean, prestakuntzan, hondartzetako salbamenduan eta sorospenean, boluntariotzan, Gazteriaren Gurutze Gorrian, Nazioarteko Lankidetzan eta sorospenean eta larrialdietan. Azken horretan, Gurutze Gorriaren erantzuna malguagoa bilakatu da, hainbat motatako soluzioak eskaintzeko: osasunekoak, sozialak, psiko-sozialak edo gizatiarrak, beste barik. **Sestaon eta Zorrotzan izandako suteetan kaltetutako familiei** eskainitako laguntza, **Galdamesen espeleologoa bilatzeko** dispositiboan izandako parte hartzea, edo aurrera eramandako **lurreko prebentziozko 1.244 zerbitzuak eta uretako 160ak** azpimarratu behar dira.

Jarduera hori guztia, bazkideen eta langileen, finantzatzaileen eta emaileen, erakunde eta instituzio laguntzaileen, Administrazio Publikoaren eta gure laguntza jasotzeko egunero Gurutze Gorriarengan konfiantza jartzen duten pertsona guztien esfortzuari, lanari eta elkartasunari esker da posible. Eta, batez ere, euren borondatezko lanarekin, pobrezia baztertzeko, planeta babesteko eta denontzako oparotasuna ziurtatzeko **Garapen Iraunkorreko Helburuak** lortzeko lan egiten duten 10.836 boluntarioen arteko gure **2.353 boluntario aktiboei esker.**

Erakunde eraginkorra eta gardena izateko helburu argiarekin, ezinbestean egin behar ditugun AENOR, ISO eta SGS auditoriez gain, **Kudeaketa Aurreratu** eredurako bidean murgilduta gaude. Txosten hau, gure aldaketa, egokitzapen eta berrikuntza izpiritutik erronka berriei ekitera bultzatuko gaituen gogoetarako tresna izatea nahiko nuke. Gizartearen aurrean irekita dago, edozein iradokizun edo hobekuntza jasotzeko. Ziur lagungarri izango zaizkigula behar sozial eta humanitario berriei erantzuteko.

Eskerrik asko.



GARAPEN IRAUNKORRERAKO HELBURUAK



GARAPEN IRAUNKORRAREN HELBURUAK ETA GURUTZE GORRIA

2015eko irailaren 25ean Garapen Iraunkorraren Helburuak (GIH-ODS) hartu ziren, garapen iraunkorrerako agenda berriaren parte gisa, pobrezia baztertzeko, planeta babesteko eta guztion ongizatea bermatzeko. Helburu bakoitzak, 2030. urtean lortu behar diren helburu espezifikoak ditu.

17 Helburu horiek Milurtekoaren Garapen Helburuen lorpenetan oinarritzen dira, beste arlo batzuk ere barne hartzen dituzten arren, klimaren aldaketa, desberdintasun ekonomiko, berrikuntza, kontsumo iraunkorra eta bakea eta justizia, beste lehentasun batzuen artean.

Eskerrik asko Garapen Iraunkorraren Helburuak lortzen laguntzen duten Gurutze Gorriaren ekintzak aurrera daramatzaten boluntario guztiei.

Memoria honetan, Bizkaiko Gurutze Gorriak GIH-ODSei laguntzeko egiten duena islatu nahi dugu. Hori dela eta, jarduera alor bakoitzaren ondoan dagozkion ikonoak sartzen ditugu.



ZER EGITEN DUGU?

- 9 · OSASUNA
- 13 · SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK
- 17 · ITSAS SALBAMENDUA
- 19 · LAGUNTZA, SALBAMENDU ETA SOROSPEN ZERBITZUA BIZKAIKO HONDARTZETAN
- 21 · GIZARTERATZEA ETA GERTUTASUNA
- 27 · ENPLEGUA
- 31 · PRESTAKUNTZA INSTITUTUA
- 35 · BERDINTASUNA
- 37 · INGURUMENA
- 39 · GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA
- 43 · NAZIOARTEKO LANKIDETZA

NORK EGITEN DU?

- 47 · BOLUNTARIOEK, LANGILEEK, PARTAIDETZAK ETA TOKIKO GARAPENAK

ZELAN EGITEN DUGU?

- 55 · BALIABIDEAK
- 57 · KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

ZELAN FINANTZATZEN DA?

- 61 · BAZKIDEAK
- 63 · FUNTSEN ETA ALIANTZEN ERAKARPENA

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

- 67 · KUDEAKETA EKONOMIKOA
- 71 · JARDUERAREN DATUAK

75 KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

ZER EGITEN DUGU?

-





OSASUNA

Bizitzeko ohitura eta estilo osasungarrien sustapena.



...

Osasunaren alorrean, Gurutze Gorria Osasunaren Sustapenean inplikaturik dagoen erakundea da, eta egoera zurgarriaren dauden kolektiboak eskaintzen die arreta, batez ere.

Illo horretan, Planaren Helburua hau da:

- Bizitzeko ohitura eta estilo osasungarriak sustatzea, eta baita trafiko, etxeko eta aisiako istripuak prebenituko dituzten jokoerak eta jarduketak sustatzea ere, biztanle guztien artean eta, batez ere, egoera zurgarriagoa duten edo arrisku gehiago dutela dirudien taldeen artean.

Urte honetako lan arloak hauek izan dira:

- Transmisiozko gaixotasunak:
 - Sentsibilizazioa gripearen Kanpainaren Gertutasun Metodologiaren bitartez.
 - Sexu Transmisiozko Gaixotasunen Prebentzioa.
- Transmisiozkoak ez diren gaixotasunen arloko jarduketak:
 - Bihotzeko gaixotasunak.
 - Arnas gaixotasunak.
 - Buru gaixotasunak.
- Osasunaren sustapenaren eta osasunerako hezkuntzaren alorreko prebentzio ekintzak bultzatzea.
 - Prestakuntza biztanleriari orokorrean lehen laguntzetan eta BBB-RCPan.
 - Istripuen Prebentziorako "Prebenitzea Bizitzea da" kanpaina; "Uda honetan maite ezazu zure burua", "Errepidean, maite ezazu zure burua" "Etxean, maite ezazu zure burua"...

· Osasun alorreko gizarte desberdintasunak lantzea:

- Gizarte bazterketa egoeran dauden pertsonentzako botika proiektua.

· Teknologia berriak sartzea:

- Puntukako Osasunaren PUNTUAN Proiektuan Parte hartzea.

9



Transmisiozko gaixotasunen prebentzioa

Gripe eta Sexu transmisiozko Gaixotasunen kanpaina

430 Artatutako biztanleria



Osasun sustapena

Hotzaldien eta Beroaldien aurreko aholkuak

338 Artatutako biztanleria



Prestakuntza eta Osasunaren sustapena

Lehen Laguntzen Jardunaldiak - RCP

1.380 Artatutako biztanleria



Beste osasun kanpaina batzuk

Arrisku kardiobaskularraren prebentzioa
Elikadura osasungarriko kanpaina

798 Artatutako biztanleria

GUZTIRA 2.946 Artatutako biztanleria



Osasunaren Munduko Eguna

Urtero legez, Bizkaiko Gurutze Gorriaren osasun planaren barruan, Osasunaren Munduko Eguna ospatu da apirilaren 7an. Aurten **depresioan** zentratu da. Osasunaren Mundu Erakundeak mezuan azpimarratzen duenez, posible da gaixotasun hori prebenitzea eta tratatzea.

Kanpainaren helburu orokorra, herrialde guztietan, depresioa duten gero eta pertsona gehiagok laguntza eskatzea eta lortzea da.

Zehatzago esanez, hau lortu nahi da:

- Jendeak, orokorrean, depresioari buruzko informazio gehiago eta hobea izatea, bere zergatiak eta ondorio posibleak, suizidioa barne, eta baita gaixotasunaren prebentziorako eta tratamendurako dagoen laguntza.
- Trataturik gabeko depresioa duten pertsonen laguntza eskatzea; eta depresioa duten pertsonen senideek eta adiskideek laguntza emateko aukera izatea.

Bizkaiko Gurutze Gorriak **'Ezin baduzu gehiago... SOLTA EZAZU. Depresioa. Hitz egin dezagun'** izeneko sentsibilizazio kanpaina jarri du martxan.



Hori dela eta, aste horretan zehar Sentsibilizazio tailerrak eta estimulazio kognitibo jarduerak gauzatu dira. Kalkulatu denez, ekintza horren bitartez **715 pertsonarengana** heldu da.

Kanpainan zehar materiala banatu zaie (kartelak, txartelak, liburuxkak, gomazko bihotzak...) Probintziako Bulegoko eta Batzarretako jarduera planetan parte hartu duten presuntakuntza ekintzetan parte hartu duten pertsona guztiak.

Horrez gain, kanpaina horretan langileak ere partaide bilakatu dira, eta apirilean gaiari buruzko informazioak jarri dira etengabe Probintziako Bulegoko Telebistako informazio pantailan eta Sare Sozialetan.

Istripuen prebentzioari eta lehen laguntzei buruzko sentsibilizazio proiektua

Beste urte batez, uztailean, abuztuan eta irailean, Bizkaiko Gurutze Gorriak sentsibilizazio eta informazio proiektua gauzatu du istripuen prebentzioaren eta lehen laguntzen inguruan. Hala, hainbat sentsibilizazio jardunaldi egin dituzte tailer hezigarri eta ludikoekin, Bizkaiko hondartzetako erabiltzaileentzat.

Helburua, aisia gune hori denon gozamenerako leku segurua bilakatzeko jarraibideak eta aholkuak ematea izan da. Hori dela eta, aholkuak, eguzkiaren arriskuen, uraren arriskuen eta itsasoko animaliek eragindako lesioen prebentzioari eta ingurumenaren babesari buruzkoak izan dira.

Udako sasoiari lotutako hainbat arrisku prebenitzeko beharrianaz jabeturik, **"Uda honetan, maite ezazu zeure burua" kanpainaren XV. edizioa** jarri zuen martxan Bizkaiko Gurutze Gorriak, epe ertainera eta luzera hiru helburu nagusi lortzeko:

- Herritarrak informatzea udak dakartzan arriskuez, haren ondorioez eta, batez ere, horiek prebenitzeko hartu beharreko neurriez.
- Udako ohiko istripuen aurrean jarrera aktiboa hartzeko beharrianaz sentsibilizatzea, ahal den neurrian istripuak ekidinez.
- "Prebentzioaren kulturarekiko" jarrera harkorra lortzea, bereziki positiboak diren gomendioak eta aholkuak oinarri hartuta.

Kanpaina horren aurkezpena **Ereagako hondartzan egin zen uztailearen 10ean**, hainbat irakaslerekin, boluntarioekin eta sorosleekin elkarlanean eta koordinatzaile nagusiarekin batera.

"Uda honetan, maite ezazu zeure burua" kanpaina horrez gain, hilabete horietan **lehen laguntzen eta bihotz-biriketako bizkortzearen inguruko tailerrak** egin dituzte Bizkaiko 20 hondartzatan, eta **450 bat pertsonak** hartu dute parte. Guztira, 1.300 informazio eskuorri banatu dituzte.

Hori dela eta, aholkuak eguzkiaren eta uraren arriskueta, itsasoko animaliek eragindako lesioetan eta ingurumenaren babesean zentratzen dira.

Proiektu horren prestaketan, martxan jartzean eta jarraipenean hauek hartu dute parte:

- Boluntarioek, informazioa emateko eta liburuxkak banatzeko eta jarduerak antolatzeko.
- Irakasleek, tailerrak emateko.
- Sorosleek, hondartzetan ematen diren tailerretan laguntzeko.
- Ekipamenduak muntatzeko eta desmuntatzeko langileek.
- Bestelako laguntzaileek.



Lehen laguntzen Mundu mailako Egunaren ospakizuna / irailak 9

Bizkaiko Gurutze Gorriak **Lehen laguntzen Mundu mailako Eguna** ospatu zuen irailaren 9an Bilboko Zubiarte merkatalgunean, 11:00etatik 14:00etara, bihotz-birikietako berpizteari, elektrokuzioei, gauzak eztarrian geratzeari, gorputz-adarretako eta buruko traumatismo arinei eta botikari buruzko doako tailerrekin 200 pertsona ingururen parte hartzearekin.

Aurten, Mundu mailako Eguna 'Etxeko Istripuetan' zentratu da, hau da, etxean gertatzen diren eta prebenitu daitezkeen gertakarietan.

Jardueren eta tailerren difusioa prentsa oharren eta Bizkaiko Gurutze Gorriaren sare sozialen bitartez (Facebook, Twitter, Instagram, Flickr, Google+ eta Youtube) egin da.




Hashtag zerrenda:

- **Hondartzetako tailerrak:** #Playas2017 #RCP #BañoSeguro #PrevenirEsVivir
- **Osasunaren mundu eguna:** #DíaMundialDeLaSalud #DíaSalud
- **Lehen laguntzen mundu eguna:** #PrimerosAuxilios



SOROSPENAK ETA LARRIALDIAK

*Erantzun azkarra eta biktimen beharretara egokitua,
larrialdi edo krisi egoeretan.*



...

Gurutze Gorriaren helburua larrialdi edo krisi egoeretan biktimen beharrei erantzun azkarra eta egokia ematea, biztanle guztiei zuzendua, orokorrean, eta arreta berezia jarriz pertsona zaugarrienengan, lehenengo laguntzak tokian bertan eskainiz, eta, hala badagokio, ospitale batera eramanaz.

LURREKO ETA ITSASOKO PREBENTZIO ZERBITZUAK

Zerbitzu horiek, pertsona asko elkartuko direlako edo ekitaldiaren ezaugarri bereziak direla eta, arriskuak izan ditzakeen ekitaldi edo ebentuen baten estaldura egiteko orduan martxan jartzen den gizarte-osasun alorreko antolakuntzari, plangintzari eta arretari dagozkie.

- Kulturalak: erakusketak, jardunaldiak, topaketak, jai herrikoiak...
- Kiroletakoak: futbola, saskibaloia, rallyak, estropadak, irristaketa, bela, txirrindularitza...
- Bestelakoak: kontzertuak, prozesioak, erromeriak, erakusketak, erakustaldiak.

lax, **616 boluntario baino gehiagok** eman zuten izena ekimen honetan. Gehien bilatzen diren soslaiak sorosleak, larrialdi teknikariak, erizainak, medikuak, sos akuatikoak, patroiak, koordinatzaileak, logistak... dira.

Lurreko **1.244 prebentzio zerbitzu** gauzatu dira aurten, eta uretako **160 prebentzio zerbitzu**. Prebentzio zerbitzuak jar-

dueraren arabera banatu dira: 706 kirol ekitaldiak izan ziren, 444 aisia jarduerak eta 164 kultura eta gizarte arlokoak.



Gure estaldura garrantzitsuenen artean hauek azpimarra ditzakegu:

- Bilbao-Bilbao Nazioarteko Zikloturista Martxa, 9.000 txirrindularirekin.
- Bilboko Herri Krosa Herri Lasterketa, 8.000 lasterkarirekin.
- Aurten Mungian ospatu den Ibilaldia, 60.000 pertsonarekin.
- Basque Ultra Trail Series: Bilbo - Gasteiz eta Donostia - Bilbo.
- Bilboko Triatloia 1.200 partaiderekin.
- Guggenheim Museoaren XX. urteurrena - Reflections.



LARRIALDIETAKO BEREHALAKO ——— ERANTZUNA EMATEKO TALDEAK - ERIE

Ekipo horiek, larrialdi egoera batean sortzen diren biktimen beharrei erantzuna eta arreta emateko egituratzen dira. Erantzun espezializatua da, taldeak, boluntario gisa herritarren parte hartzea, bultzatuko duten eredu bilakatzeko helburuz.

Proiektu horrek helburutzat du Larrialdien eraginak txikitzean laguntzeko aukera ematen duten jarduera eta eginbehar multzoa biztanle eta Administrazioaren eskura jartzea, giza sufrimendua arinduz, bizitzak salbatuz, batez ere pertsonen osasuna eta euren ingurumena babestuz.

Talde horiek SOS DEIAKekin dagoen koordinazioaren bitartez aktibatzen dira, hainbat larrialditan parte hartuz, hau da: mendiko bilaketak, uholdeak, ekaitzak, suteak, etab.



14

Bizkaian dauden taldeak hauek dira:

- Bilaketa eta Salbamendua Lurrean.
- Bilaketa eta Salbamendua Uretan.
- Biktimen Arreta eta Saillkapena.
- Behin behineko Aterpetxea.
- Laguntza Psikosoziala.

2017an azpimarratu behar da ekipo horiek eta Gurutze Goriaren Lurralde Sarea 35 aldiz mugitu direla, 345 boluntario mobilizatuz eta 442 pertsonari arreta eskainiz.

2017. urtean larrialdi hauek azpimarratu behar dira:

- Sestaoko sutea.
- Galdameseko bilaketa.
- Zorrotzako sutea.



OSASUN POSTU AURRERATUAK - PSA ———

Behin behineko izaera duen arreta azpiegitura desmontagarria. Bizi Euskarri aurreratua emateko neurriak hartzeko beharrezkoa den pertsona eta material azpiegitura dute.

Hedapena Bizkaian eskualde mailan: 6.


Materiala: Denda desmontagarria, garraiorako ibilgailu bat, 8 ohe, sendaketak egiteko materiala duten 2 tiradera, mantak, grupo elektrogenoa eta garraiorako ohexkak.



DATUAK ETA ZIFRAK

LAGUNTZAK ETA LARRIALDIAK	Pertsonak	Esku hartzeak
ERIEAK ETA BESTELAKO LARRIALDI EGOERAK	439	39
Lurreko bilaketa eta salbamendua, alpinoa	14	15
Erie Behin behineko Aterpetxea	265	4
Erie Psikosoziala	104	11
Erie Biktimen Sailkapena	56	9
PREBENTZIOZKOAK	884	1.402
Lurrekoak	851	1.242
Uretakoak	33	160
OSASUN GARRAIOA	188	188
Estaldua prebentiboetatik deribatuak	166	166
Zerbitzu ez premiazkoak	11	11
Osasun larrialdiak	10	10
Trafiko istripuak	1	1
GUZTIRA	1.511	1.629

15



%86

Lurreko prebentziozkoak

Artatutako **884** pertsona
Artatutako **1.402** zerbitzu

%2

Jarduketak larrialdietan
(ERIEak eta beste batzuk)

Artatutako **439** pertsona
Artatutako **39** zerbitzu

%12


Osasun garraioa

Artatutako **188** pertsona
Artatutako **188** zerbitzu



ITSAS SALBAMENDUA

Gizakien bizien segurtasuna itsasoan.




...

Hiru dira Bizkaian Itsas Salbamendu Programa aurrera daramaten Itsasoko baseak: Arriluze (Getxo), Bermeo eta Ondarroa. Eusko Jaurlaritzarekin eta Itsasoko Salbamen-durako eta Segurtasunerako Estatuko Sozietatearekin (SASEMAR) elkarlanean eramaten da aurrera zerbitzu

hori. Zerbitzuaren helburua, itsasoan gizakien bizitzaren segurtasuna zaintzea da, eta jarduera nagusiak arriskuan dauden pertsonen eta ontzien bilaketa, salbamendua eta erreskatea dira.

Basea	Itsasontziak
Bermeo	Bermeo II Bizkaia III Uretako motoa Bermeo I (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa) Izaro I (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa)
Arriluze (Getxo)	Basati Ereaga Itxaso hiru Uretako motoa Dhube (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa) Arriluze IV (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa) Arriluze III (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa)
Ondarroa	Aixe bolari Errekaxi Uretako motoa Merak (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa) Ondarroa (Eusko Jaurlaritzak lagatakoa)
Bizkaiko Probintzia Bulegoa	Itxaso bat Itxaso bi






146

Larrialdia


95 Arriluze
25 Bermeo
26 Ondarroa



180

Prebentzio zerbitzuak


99 Arriluze
50 Bermeo
31 Ondarroa



173

Jardunbideak

131 Arriluze
27 Bermeo
15 Ondarroa



%55

Arriluze

Artatutako **131** pertsona

%31

Ondarroa

Artatutako **73** pertsona

%14

Bermeo


Artatutako **33** pertsona

GUZTIRA Artatutako **237** pertsona



LAGUNTZA, SALBAMENDU ETA SOROSPEN ZERBITZUA BIZKAIKO HONDARTZETAN

Bizkaiko biztanleriaren babesa hondartzetan.



...

Hamabigarren urtez jarraian, Bizkaiko Gurutze Gorriak Bizkaiko Foru Aldundiak gure lurralde historikoko hogeita hiru hondartzetan eskaintzen duen Salbamendu eta Sorospen zerbitzua kudeatzaren ardura izan du.

Zerbitzu horren helburua, udan, leku horietara joaten den jende kopuru handia dela eta, gertatzen diren arrisku egoerak prebenitzea da. Horrela, hondartzetara eta hondartza inguruetara joaten diren erabiltzaileen segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerak modu eraginkorrean egonkortzeko sistema ezartzen da, oinarritzko hiru zutaberen bitartez: prebentzioa, erreskatea eta lehen laguntzak.

2017ko udan hondartzetara joandako jende kopuruaren (2.443.533 pertsona guztira) ondorioz, Bizkaiko hondartzetako sorosle taldeak 6.959 arreta gauzatu ditu, zerbitzuan emandako 1.100 ordu baino gehiagotan.

Une hauetan, Bizkaiko lurralde historikoak, baliabide material modernoek dituen Salbamendu eta Sorospen Zerbitzua eskaintzen du, eta horrek erantzun azkarra eta segurua ematen du edozein larrialdiren aurrean. Horrez gain, prebentzioan oinarritutako paradigma integralerantz eta aurreraturantz egin da aurrera, gertakari larrien murrizketa eta herritarren aldetik zerbitzua ulertzeko orduan hobekuntza lortu da.

Zerbitzuaren estaldura ondoren adierazten diren Bizkaiko hondartzetan eskaini zen, ekainaren 1etik irailaren 30era, biak barne:

- LA ARENAKO hondartza (Muzkiz-Zierbena)
- AREETAKO hondartza (Getxo)
- EREAGAKO hondartza (Getxo)
- ARRIGUNAGAKO hondartza (Getxo)





- GORRONDATXEKO hondartza (Getxo)
- BARINATXEKO hondartza (Sopela)
- ARRIETARA-ATXABIRIBILEKO hondartza (Sopela)
- MURIOLAKO hondartza (Barrika)
- PLENTZIAKO hondartza (Plentzia)
- GORLIZ / ASTONDOKO hondartza (Gorliz)
- ARMINTZAKO hondartza (Lemoiz)
- BAKIOKO hondartza (Bakio)
- ARITXATXUKO hondartza (Bermeo)
- LAIDATXUKO hondartza (Mundaka)
- TOÑAKO hondartza (Sukarrieta)
- SAN ANTONIOKO hondartza (Sukarrieta)
- LAIDAKO hondartza (Ibarrangelu)
- LAGAKO hondartza (Ibarrangelu)
- EAKO hondartza (Ea)
- OGELLAKO hondartza (Ispaster)
- ISUNTZAKO hondartza (Lekeitio)
- KARRASPIOKO hondartza (Mendexa)
- KARRASPIOKO- Txiki hondartza (Zainketa puntua Mendexako Dorretik - Mendexa)
- ARRIGORRI hondartza (Ondarroa)

GERTAKARIAK MOTAREN ARABERA

3.725 Zauria

1.092 Sabironen ziztada

662 Beste batzuk

779 Traumatismo itxia

396 Insektuen ziztada

160 Gorputz arrotza

190 Ur-korronteak

72 Eguzki ez-erredurak

70 Nekea

39 Gaixotasuna

28 Eguzkiakeragindako lesioak

34 Medusen ziztada

4 Xiringa-ziztada

7.247 GUZTIRA

%20

Ekaina

%34

Uztaila

%37

Abuztua


%9

Iraila



GIZAR TERATZEA ETA GERTUTASUNA

Laguntza zaurgarritasun maila altuena duten pertsoneri.



...

ESKU HARTZEA PERTSONA NAGUSIEKIN

Pertsona nagusien programaren abiapuntua eta azken helburua, pertsona nagusien eta gizarteko talde zaurgarrien gaitasunak indartzea da, euren eguneroko bizitzan, autonomia pertsonala eta taldekoa eta erabateko gizarteratzea erraztuz.

Ildo horretan, Bizkaiko Gurutze Gorriak pertsona nagusiekin duen esku hartzearen helburu nagusiak hauek dira:

- Pertsona nagusien **gizarte aintzatespena eta gizarte partaidetza** handiagoa lortzea. Horretarako, oso garrantzitsutzat hartzen da taldearen beste irudi bat ematea, aurretik ezarritako aurreiritziak eta kontzeptuak aldatzen eta horiei amaiera ematen ahaleginduz.
- **Ohiko ingurunean jarraitzea** bultzatzea, familian, auzoan, etab. instituzionalizazioaren aurrean. Horretarako gure programak eta jarduerak erabiltzen ditugu.
- **Zahartze aktiboarekin zerikusia duten proiektuak.**
 - **Zahartze osasungarria**, jarduera soziokulturalak, boluntario izaera sustatzea pertsona nagusien artean.
 - **Aisialdi eta denbora librearen promozioa**: senderis-moa, tai chia, erlaxazioa, eskulanak etab. bezalako jarduerak.
 - **Ingurumenarekin zerikusia duten jarduerak**: aisia ekologikoa, sentsibilizazio jarduerak.
 - **Teknologia berriekin zerikusia duten jarduerak**: tabletei eta smarphonei buruzko ikastaroak.

• Menpekotasunarekiko prebentzioa eta laguntzarekin zerikusia duten proiektuak.

- **Pertsona nagusientzako sare soziala**: etxeko eta egoitzetako laguntza, eta unean uneko laguntzak.
- **Funtzio kognitiboak kaltetuta dituzten pertsonentzako arreta**: estimulazio kognitiboa etxean eta taldeetan, oroimen tailerrak.
- **Informazioa eta gaitasuna zaindari informaleztzat**: zaintzaileentzako ikastaroak eta www.guiaparamayo-res.org webgunea.
- **Egoitza-zentroen dinamizazioa**: Bizkaiko Gurutze Gorriaren Abesbatzaren emanaldiak.
- **LOPE**: Pertsona Nagusientzako GPS lokalizagailua.
- **Etxeko tele-laguntza**.





POBREZIAREN ETA GIZARTE-BAZTERKETAREN AURKAKO BORROKA

Baliabide urriak dituzten pertsoneri eta familiei zuzendutako arreta eta laguntasun proiektua da, euren etxeetan sortzen diren hileko gastuei aurre egin ahal izateko. 2017ko urte honetan laguntza hauek eman ahal izango zaizkie familia horiei:

- **Elikagai kanpaina:** FEADen ez ohiko banaketa, Hozkailu solidarioa, hileroko elikagai banaketak.



- **Euren kargura adin txikikoak dituzten familientzako laguntza:** Ume jaio berrientzako elikadura eta higiene sorta.
- **Pobrezia energetikoa:** hornidurak ordaintzeko laguntza.
- **Etxeko ekonomia tailerrak.**
- **Unean uneko kanpainak:** umeentzako produktuak bil-tzeko kanpainak.
 - Eskolako materiala: "Eskolara itzultze solidarioa" kanpaina.



- **Gosariak eta askariak:** "Gosariak eta askariak bihotzarekin" kanpaina.



- **Denboraren bankua:** euren ezagutzak eta denbora modu altruistan konpartitzen dituzten pertsonak, besteiei laguntzeko, egitekoak trukatzuz.

PETXERIK GABEKO PERTSONAK

- **Neguko kit-en banaketa:** hotza kentzeko arropa, lozakuak, motxila, higiene kit-a...
- **Larrialdi Sozial Unitateak - UES – Gaueko irteerak:** etxerik gabeko pertsonentzako arreta kalean, edari beroen banaketa, oinarritzko osasun arreta.
- **Atsedene gunea:** atsedenerako areto bat prestatzen da, eguneko ordutegiarekin, etxerik gabeko pertsonentzat, hotzaldia aktibatzen denean.
- **Osasun tailerrak.**
- **Neguko aterpetxea eta hotzaldietako aterpetxea:** 2017 urte honetan 90 plazako bi aterpetxe prestatu dira Bilbon gaua igarotzeko. 60 plaza neguan eta errefortzuko 30 hotzaldietan.

HAURTZAROA ETA FAMILIA

- **Jostailu kanpaina:** jostailu berrien banaketa, haurren eskubideei buruzko hedapena eta sentsibilizazioa.



- **Munduari Jirabira:** tudan, udaleku gisa, hainbat nazionalitateko adingabeekin egiten diren kulturarteko tailerak. Bertan kulturartekotasuna eta gizarteratzea lan-tzen dira.
- **Alkarregaz:** helburu nagusi Lehen Hezkuntzatik DBHrako etapa aldaketa erraztea da, lehen hezkuntzako seigarren mailako ikasleen harremanak bultzatuz.
- **Euskara eta gaztelania klaseak** hizkuntzan laguntza behar duten umeentzat.
- **Ume jaioberrientzako produktuen mailegua:** lehenengo haurtzaroan arreta eskaintzeko artikuluen mailegu zerbitzua: aulkiak, sehaskak, hamakak... horiek erosteko zailtasunak dituzten familientzat.
- **Umeentzako musika tailerra.**

ETORKINEN ETA ERREFUXIATUEN PROGRAMA

- **Asilo eskatzaileei eta errefuxiatuei zuzendutako programa:** Hainbat zerbitzuek osatutako programa integrala da, horietako bakoitza bere helburuekin, baina osotasunean, programaren onuradun diren pertsonen harrera eta integrazioa finkatzea eta lortzea bilatzen dutenak. Helburua, babes subsidiarioaren eskatzaileei edo/eta onuradunei aldi baterako harrera eta gizarteratze prozesuan laguntzea da, behar besteko autonomia maila lortu ahal izateko beharrezkoak diren tresnak eskainiz, biztanleria autoktonoaren baldintza berberekin. Bizkaiko Gurutze Gorriak eskaintzen duen programa osatzen duten zerbitzuak hauek dira:
 - Gizarte esku hartzea/Laguntza ekonomikoak.
 - Aldi baterako harrera (70 plaza Bizkaian).
 - Laguntza legala eta juridikoa.
 - Interpretazioa eta itzulpena.
 - Hizkuntzaren ikasketa.
 - Gizarteratzea eta laneratzea.
 - Laguntza psikologikoa.
 - Goiha: Bizkaiko Foru Aldundiaren programa, erabateko gizarteratzerara heltzen ez diren eta nolabait autonomia izango den bizimodua aurrera eraman ahal izateko erakundearen laguntzen beharra izaten jarraitzen duten nazioarteko babes eskatzaileei zuzenduta.

- **Itsasartetik heldu berri diren eta euren kontura adingabeak dituzten edo ez dituzten emakumeei zuzendutako Giza Laguntza programa:**
 - **Harrera:** lehen harrera eta, gizarteratze ibilbideak. (28 plaza Bizkaian).
 - **Gizarteratzerara zuzendutako tailerrak:** etxeko ekonomia, gizarte alorreko trebeziak...
 - **Ingurune berrira eta harrerako herrialdera egokitzea zuzendutako tailerrak:** sexualitatea, elikadura ohitura osasungarriak, ingurunearen ezagutza, etab.
 - **Laguntasunak:** gestioak egitera, osasun etxeetara, erosketetara.
 - **Lan koordinatua erakundeekin, trata sareak haute-mateko.**
- **Muturreko zaurgarritasun egoeran dauden etorkinei zuzendutako Harrera programa:**
 - **Harrera:** Heldu berri diren etorkinei zuzendutako informazioa eta aholkularitza (6 plaza Bizkaian).
 - **Gizarteratze ibilbideak:** ostatu laguntzak, mediku jarraipenak, dokumentazioa bideratzea, etab.
- **AHOLKU SAREA programa:** Lege aholkularitza atzerri-tartasun alorrean.
- **Bizikide izaten tailer kulturala:**
 - **Gaztelarazko klaseak:** alfabetatzea, maila ertaina eta goi-maila.
 - **Hizkuntza bikoteak:** bertako boluntarioekin hizkuntza 10 astetan praktikatzea.
 - **Irteera kulturalak:** proiektuko boluntarioekin eta erabiltzaileekin bisita gidatuak eta txangoak euskal kultura eta ohiturak ezagutzeko.

ESKU HARTZEA ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONEKIN

Jada existitzen diren sare sozialetan aniztasun funtzionala duten pertsonen partaidetza edo/eta integrazioa sustatzea, ezintasun fisiko maila altua duten pertsonen gizarteratze maila handitzea aisia eta denbora libre jardueretan duten partaidetzaren bitartez, eta dauden laguntza baliabideak erabilgarriago egitea dira egitasmo hau gidatzen duten hel-



buru nagusiak eta, azken finean, mugikortasun urria duten pertsoneri hainbat jardueratan parte hartzeko eta aukera bakarra garraio publikoaren erabilera izanik, egiteko zailak diren gauzak egiteko aukera ematen diete.

• **Garraio egokitua:**

- **Zerbitzu erregularrak:** eguneko zentro, egoitza eta gainontzeko erakundeetara joan-etorriak.



- **Aldian behingo zerbitzuak:** kudeaketak egitera, mediku zerbitzuetara... joateko laguntzak.
- **Aisialdia eta denbora libre:** minusbaliotasuna duten pertsonentzako aisialdi eta denbora libre jarduerak.
- **Laguntza produktuak:** laguntza teknikorako mailegu zerbitzua (gurpil-aulkia, taka-takak, ohe artikulatuak, makuluak, etab.).

ZAILTASUN SOZIALAK DITUZTEN EMAKUMEAK

- **ATENPRO:** Genero indarkeriaren biktimei zuzendutako Tele-laguntza mugikor proiektua, arreta psikosoziala eta jarduera osagarriak.
- **Talleres para mujeres:** ahalduntzea, gizarte sareen sor-kuntza (amen tea) eta lana bilatzeko orientazioa eta gaitzuntza lantzen dira.

KARTZELETAN DAUDEN PERTSONAK

Erkidegoaren aldeko lanak.

Beste urte batez, Gurutze Gorriak, zigortuta dauden pertsoneri zuzendutako egitasmoaren kudeaketan hartu du parte,

erkidegoaren aldeko lanak egin ditzaten. "Ni osasun eragile" tailerra –Basauriko Kartzela.

TOKIKO GERTUTASUNA


Tokiko gertutasunaren helburua, ingurunean zaugarritasun egoera larrienean dauden pertsoneri oinarrizko gizarte arreta, eta, gizarte arrisku eta bazterketa faktoreak prebenitzeko eta murrizteko beharrezkoak diren gizarte baliabideetara heltzeko eta horiek erabiltzeko beharrezkoa den informazioa ematea da. Metodologia horren bitartez, Gurutze Gorriak, pertsona zaugarrienen gertuko jarraipena egin dezake, lagunduz eta, horrela, boluntario baten beharra izan dezaketen egoerak hautemanez.

• **Jarraipen deiak:**

- Pertsona nagusiak: telefono bidezko asteroko laguntza jarraipen deiak, unean uneko laguntzak gogoraraztea, baliabideei buruzko informazioa, ingurumenarekiko sensibilizazioa.
- Gainontzeko taldeak: Asebetetze galdera-sorta, hitzorduen oroigarriak, etab.
- **Kanpainak:** Hainbat gairen inguruko informazioa eta sensibilizazioa: hotzaldiak, gripearen aurkako txerto kanpaina, beroaldiak eta iruzurren kontrako kanpaina.



2017KO TOKIKO GERTUTASUNA





ENPLEGUA

Enplegua eskuratzea, gizarteratzeko tresna gisa.



...

ENPLEGU PLANA

Bizkaiko Gurutze Gorriaren Enplegu Planaren helburua, gizarte arazoak dituzten edo lan merkatutik urrun dauden pertsonen, lanpostua eskuratzeko eta horri eusteko aukera izatea da, baldintza berberekin, gizarteratzeko tresna gisa.

Helburuak

- Pertsonen aukerak eta gaitasunak indartzea, enplegua aurkitzeko aukerak handituz eta lan merkatuan sartzeko prozesuetan aktibo izango dituzten egitasmoak gauzatu.
- Zailtasun gehien dituzten herritarren lan insertzioa bultzatzea, pertsona horien gizarteratzea lortzeko.
- Pertsonen inklusioa bultzatuko duen lan eta gizarte ingurunea sortzen laguntzea, lana aurkitzeko orduan aukera berdintasunak zaildu ditzaketen generoaren, jatorriaren edo adinaren arabera oztopoak murriztuz.

Proiektuak

2017an, Bizkaiko Gurutze Gorriak honako proiektu hauetan egin du lan:

- **Gizarte Inklusiorako eta Ekonomia Sozialerako Programa Operatiboa (POISES):** Laneratzeko ibilbideak 30 urtetik gorako pertsonentzat.
- **Ibilbide integralak gizarteratzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat:** zailtasun sozialak dituzten pertsonen lan arloan aukera berdintasuna izatea dute helburu.

- **Enpresen eta gizartearen erronka laneratzeko bultzatzeko - ALIANTZAK:** enpresak eta gizarte hartzen ditu ardatz, gizarte bazterkeria jasateko arriskua duten pertsonen laneratzeko sustatzeko.

- **Gazteen Enplegurako Programa Eragilea (POEJ):** Proiektuak Gazte Bermean inskribatuta dauden 30 urtetik beherako pertsonen zuzenduta daude.

- **Pulsa empleo proiektua - Laneratzeko aktibazioa, orientazioa eta laguntza Gazte Bermean dauden gazteentzat:** gazteak motibatzea eta aktibatzea, lan orientazioa eta aholkularitza eta laguntza.

- **Prestakuntza Gazte Bermean dauden gazteentzat:** jarduera horietan enplegarritasuna hobetzen da, konpetentzia pertsonalak, zeharkakoak eta tekniko profesionalak garatuz eta ikasiz.

- **Lan eginez ikasi:** prestakuntza jasotzeko neurri espezifikoa da, ikasketetan emaitza eskasak dituzten eta baliabide urriko familietako gazteei zuzenduta.

- **ARIADNA Sarea:** Helburu gisa, Nazioarteko Babes eskatzaileek eta onuradunek gizarteratze eta laneratzeko arloetan dituzten behar espezifikoak erantzutea duen ekintza proiektu integrala. Helburu nagusia lan merkaturako bazterketa saihestea da eta pertsona horien lan munduan erabat integratzea, ibilbide pertsonalizatuak eta gaitasunaren bitartez.

- **Profesionaltasun agiriak lortzeko prestakuntza:** Laneratzeko ibilbideak dira, Gazte Bermean inskribatuta dauden eta hiru profesionaltasun agiri dituzten partaideekin, 30 urtetik beherako gazteei zuzendutakoak.

- **Beste batzuk:** 2017an, bi prestakuntza proiektu onartu dizkigute.



- **Birkualifikatzeko prestakuntza:** Krisiaren eragina jasanez duten epe luzeko langabeei zuzenduta dago, hain zuzen ere, enplegarritasuna hobetzeko birkualifikazio profesionala behar dutenei, eta euren lan arloko beharrezanean erantzuteko diseinatu da.
- **Enplegarritasunaren sustapena:**
 - Bizkaiko Lurralde Historikoko gazte langabetuak: erdi edo goi mailako lanbide heziketa titulazioa edo unibertsitateko graduiko ikasketak amaituta dituzten 30 urtetik beherakoak.
 - Laneratze ibilbideak zailtasun bereziak dituzten pertsonekin (iraupen luzeko langabetuak, 45 urtetik gorakoak, etab.).
- **Enplegua lortzeko neurri espezifikoak:** Enplegu Planean parte hartu duten guztiei honako zerbitzu hauek eskaini dizkiete Gurutze Gorriko boluntarioek eta teknikariek.
 - Lan arloko informazio guneak: lan arloko orientazioa eta informazioa enplegu baliabideen inguruan.
 - Zeharkako prestakuntza: enplegua bilatzeko oinarriko teknikak, gaitasun sozialak eta lanerako gaitasunak, oinarriko informatika eta Internet, eta abar.
 - Enplegua bilatzeko guneak: ordenagailuak eta Interneteko sarbidea dituzten gelak dira, ordutegi zehatz batean daude zabalik eta Enplegu Planeko edozein partaide joan daiteke enplegua bilatzera.



166.292

Ian ordu eginak enplegu proiektuetan


830

Harreman enpresekin guztira

ENPLEGU ZERBITZUAREN DATUEN LABURPENA

905

Partaideak





PRESTAKUNTZA INSTITUTUA

Giza eta lan prestakuntza.



...

Bizkaiko Gurutze Gorriak ibilbide luzea du prestakuntza sozio-sanitarioaren, nazioarteko kooperazioaren, osasunaren, ingurumenaren... munduan, Gurutze Gorriaren beraren titulazioak, Lanbide Heziketakoak eta urtero 7.000ren bat ikasle alor profesionalen zein lan alorrean gaitzera bideratutako beste prestakuntza ekintza batzuk eskainiz.

Zentroak, Proiektuen Kulturaren ezarpenean oinarritutako Berrikuntzaren Kudeaketa ereduaren lehen pausoak eman ditu. IKASKETA AKTIBOAREN ETA LANKIDETZAKOAREN (talde lana) barruan dagoen metodologiaren aldeko apustua egiten du. Irakaskuntzarako filosofia horrek arrazoinamendu eta azterketa kritikoa aurrera eramatea, galderak egitea bultzatzea, benetako arazoak eta konponbideak sustatzea, irizpideak garatzea, egoerak aztertzea eta ondorioak ezartzea ahalbidetzen du.

Horrez gain, ikastetxeak nazioartekotzearen eta ikasleek atzerriko proiektuetan izan behar duten partaidetzaren aldeko apustua egiten du, ERASMUS +.

HEZKUNTZA ESKAINTZA

LANBIDE heziketa (CEPS gurutzegorria bhip-privatua eusko jaurlaritzarekin kontzertatua)

· Erdi Mailako Heziketa Zikloak

- Erizaintza Laguntzaile teknikaria.
- Osasun larrialdietako teknikaria.

· Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Laborategi Klinikoko eta Biomedikoko teknikaria.
- Dietetika teknikaria.
- Gizarteratze teknikaria (B hizkuntza eredu).

Lanbide Heziketako ikasleek kontzertatutako ehun enpresa baino gehiagotan egiten dute praktika profesional programa: ospitaletan, klinika pribatuetan, egoitza geriatrikoetan, GUFEn zentroetan, catering enpresetan, dietetika zentroetan, osasun garraio enpresetan, zailtasunak dituzten adingabeen zentroetan, ikastetxeetan, laborategi pribatuetan eta Bioteknologia enpresen laborategietan.

Eskuratutako gaitasunen kalitatea azpimarratu behar dugu, Profesional Teknikoen laneratze maila altuaren bitartez. Halaber, ikasketekin jarraitu nahi dutenentzat, oinarri ona finkatzen dugu, eta oso altua da Unibertsitatera sartzen direnen kopurua.

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
48	95	143

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
56	136	192

GUZTIRA		
Gizonak	Emakumeak	Guztira
104	231	335



Gurutze gorriaren titulazioak

Prestakuntza honek Espainiako Gurutze Gorriaren Heziketa Planean ezarrita dauden irizpideak jarraitzen ditu, eta heziketa akzio horiek lau alorretan banatzen dira:

- Esku-hartzerako prestakuntza.
- Inklusiorako eta gizarte partaidetzarako prestakuntza.
- Biztanle guztientzako prestakuntza.
- Garapen instituzionalerako prestakuntza.

ESKU HARTZERAKO PRESTAKUNTZA.

- **Gizarte prestakuntza:** gizarte alorreko egitasmoetan (pertsone nagusiak, urritasuna duten pertsonak, haurrek eta gazteak, atzerritarrak, etab.) parte hartzen duten boluntarioak gaitzea eta prestatzea.
- **Sorospen eta larrialdietarako prestakuntza:** boluntarioak prestatzea eta entrenatzea lehen laguntzetan eta sorospenean, hondamendietako eta larrialdietako esku hartzeetan eta laguntza psikologikoan zentratutako jarduketara jarraibideetan. Uretako bilaketako eta salbamendu-

duko berehalako erantzuneko ekipoen entrenamendua eta biktimak sailkatzeko ekipoak.


- **Osasun prestakuntza:** boluntarioak osasunerako prebentzioan eta hezkuntzan prestatzea.

INKLUSIORAKO ETA GIZARTE PARTAIDETZARAKO PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza honen helburua gizareratzea eta gizarte alorreko partaidetza bultzatzea eta pertsonen lanerako aukerak hobetzea da. Prestakuntza ekintzak hezkuntza ez formalarekin erlazionatutako ekintzetatik hasi (ohitura osasungarrien sustapena, trebezia pertsonalen eta sozialen hobekuntza, etab.) eta enplegurako prestakuntzaraino (lan munduan sartu aurreko prestakuntza, gaitasun profesionala, enplegu tailerrak, gizareratzea-laneratzea, etab.) doaz.

104

Enpresa publikoei eta pribatuei zuzendutako prestakuntza



%10

Esku hartzea

728 ikasle

%11

Inklusioa eta gizarte partaidetza

817 ikasle

%72

Herritar guztiak

5.268 ikasle

%7

Garapen Instituzionala

496 ikasle

GUZTIRA 7.309 ikasle

BIZTANLE GUZTIENTZAKO PRESTAKUNTZA.

- **Osasun alorreko interesa duten ikastaroak:** lehen laguntzak, uretako sorospena, laguntza psikologikoa.
- **Gizarte alorreko interesa duten ikastaroak:** gizarte egoera zailean dauden emakumeak, umeak eta gazteak, urritasuna duten pertsonak, ikastetxeetako jantokietako begiraleak, elikagaien manipulatzaileak, pertsona nagusiak eta zeinuen hizkuntza.
- **Enpresa publikoei eta pribatuei zuzendutako prestakuntza:** enpresei eskainitako prestakuntza eskaintza zabala.

GARAPEN INSTITUZIONALERAKO PRESTAKUNTZA.

Prestakuntza hau Gurutze Gorriko kideen gaikuntzara eta trebakuntzara dago zuzenduta, ideologia eta lan metodologia behar bezala hedatu ditzaten, eta baita eginbeharrak eta funtzioak bete ditzaten ere.

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRIAK.

Heziketa Institutua LANBIDEk ondorengo alorretan profesional ziurtagiriak lortzeko eskaintzen dituen ikastaroak EGIAZTATZEN DITUEN ZENTROA da:

- Osasun garraioa.
- Biktima anitzak eragin dituen gertakariaren inguruko osasun arreta.
- Instituzio sozialen menpe dauden pertsonetako arreta sozio-sanitarioa.
- Etxeetan dauden pertsonetako arreta sozio-sanitarioa.
- Sorospena ur espazio naturaletan.
- Sorospena ur instalazioetan.

Profesionaltasun Ziurtagiriaren Prestakuntza

Osasun garraioa

113 ikasle

Gizarte eta osasun arreta gizarte erakundetan dauden eta mendekotasuna duten pertsonentzat

71 ikasle

Sorospena ur espazio naturaletan

39 ikasle

ZIURTAGIRI PROFESIONALETAKO IKASLEAK GUZTIRA

223 ikasle**“Henry Dunant”, denbora libreko eskola:**

“Henry Dunant” eskola 1993. urtean sortu zen, Gazteriaren Gurutze Gorriaren denbora libre taldeetako boluntarioak prestatzeko xedez.

Denborarekin prestakuntza hau biztanle guztiei zabaltzen zitzaien, denbora librearen profesionalak gaitzeko asmoz. Egun, prestakuntza Institutuak Eusko Jaurlaritzak homologatutako denbora libreko begirale (220 ordu) eta denbora libreko zuzendari (105 ordu) ikastaroak eskaintzen ditu eta bi **PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI** emateko **LANBIDEK AKREDITATUTAKO ZENTROA** da:

- Denbora libreko jardueren dinamizazioa.
- Denbora libreko jardueren zuzendaritza eta koordinazioa.

Prestakuntza Denbora Libreko Eskolan

Denbora Libreko Begiralea

31 ikasle



BERDINTASUNA


Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bidean.



...


Gizarteratze metodologia modulua:

- Genero Indarkeriaren alorreko Sentsibilizazioa, Prebentzioa eta Prestakuntza boluntarioei eta langileei.
- "Sexu indarkeriari" buruzko Sentsibilizazio tailerrak gazteentzat.



- "Sare Morea" Programa: emakume nagusien kontrako indarkeria.
- Sentsibilizazioa eta prestakuntza langile teknikoei eta boluntarioei.
- Komunikazio barneratzailerako gida praktikoa; hizkuntza eta komunikazio ez sexistaren eskuliburua prestatzea, banatzea eta erabiltzea.
- Bizkaiko Gurutze Gorriaren Hitzarmenak, bere X. kapituluari, Genero Berdintasuna eta Laneko eta familiako bizitzako Kontziliazioa jasotzen ditu, Genero Berdintasuna eta Diskriminazio eza izeneko 53. artikuluan, hain zuzen ere.
- Aintzatespenak urteetan zehar Bizkaiko Gurutze Gorriaren borondatezko partaidetza izan duten eta duten emakumeei.

- Carmen Ana Mestre Llopart andrea, bere 84 urteetatik 63 boluntario gisa daramatza, eta gaur egun Bilboko presidenteordea da.



- Begoña Goicoechea Gandiaga andrea, "Antonio Menchaca Fundazioak" Elkartasunari ematen zaizkion sei Sarietako bat eman zion iaz, Bizkaiko Gurutze Gorriaren boluntario gisa egin duen ibilbidea dela eta aurkeztutako kandidaturarengatik.





INGURUMENA

Kontzientzia eta sentsibilizazioa ingurumenaren kontserbaziorako eta hobekuntzarako.



...

2017an ingurumenarekin zerikusia duten eta pertsona nagusiei zein gazteei zuzendutako hiru proiektu gauzatu ziren. Gauzatu ziren hiru proiektuak hauek dira:

BIZKAIAN IBAITIK MUGITUZ.

Ibaitik Mugituz proiektuak biztanleen mobilizazio estrategiak, atzemate esperientzia instituzionalaren, akziorako boluntarioen prestakuntza zein kudeaketaren eta Ibaien Berriztapenaren plangintza nazionalaren irizpideekin konbinatzea bilatzen du. Gure helburu nagusietakoa ingurumenaren kontserbazio eta hobekuntza jarduerekin zerikusia duten pertsona nagusien zein gazteen parte hartze soziala bultzatzea da.

Jarduketan arto hidrografikoak:

- Ibaizabal-Nerbioi ibaia.
- Aguera ibaia.
- Kadagua ibai.

Aurrera eramandako jarduerak hauek izan dira:

- Ingurumen alorrean Boluntarioak prestatzea.
- Irteerak landa gunera.
- Bilerak.

INGURUMEN ALORREKO SENTSIBILIZAZIOA.

Beste urte batez, Gurutze Gorriak ingurumen sentsibilizazioari buruzko ekimenak gauzatzen ditu, hainbat kanpainen parte hartuz.

2017ko Mundu mailako Uraren Eguna, 2017ko Mundu mailako Birkiklapenaren Eguna eta Ingurumenaren Mundu mailako Eguna.

Egun horietako parte hartzearen helburua, biztanleriak baliabide naturalen inguruan aurrezteko eta baliabide horiek zaintzeko duen banakako zein taldeko arduraz kontzientziatzea da, Klimaren Aldaketa motelduz; baliabide hidrikoen erabilerari zein kudeaketari, eta planetako hainbat lekutan gertatzen ari den lehorte zein basamortutze prozesuei, eta sortzen ditugun hondakinek eragiten duten arazoari arreta berezia eskainiz.

Aurten egin diren ekimenak hauek izan dira:

- **Ingurumen alorreko tailerrak kolektibo zaugarriarekin.**
- **Sentsibilizaziorako deiak kolektibo zaugarriarekin.**

INGURUNE NATURALETIK MUGITUZ.

Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioaren Bio-niztasunerako Fundazioarekin elkarlanean burutu den "Ingurune naturaletik Mugituz" proiektuaren helburua ingurune naturala mantentzeko ekimenak martxan jartzea da, ingurumen boluntarioaren irudiaren bidez, eta jarduera nagusiak heziketa eta ingurumen sentsibilizazioa izan dira.





GAZTERIAREN GURUTZE GORRIA

Haur eta gazteentzako jarduketa programak, hezkuntzaren ikuspuntutik.



...

Gazteriaren Gurutze Gorria (GGG) Gurutze Gorriaren gazteen saila da, 8 eta 30 urte arteko umeei eta gazteek osatua, umeei eta gazteei eta horien eragile sozializataileei (ikastetxea, familia, elkarte mugimenduak, komunikabideak, etab.) zuzendutako ekintza eraldatzailea gauzatzeko xedez, horien garapen integrala eta autonomia pertsonala indartuz eta euren gertueneko ingurunean jardunez.

Gazteriaren Gurutze Gorriko 211 boluntarioen lanari esker 22.011 esku hartze gauzatu ahal izan dira, 11.012 partaiderengana helduz, zenbait proiekturen bitartez.



ESKU-HARTZEA

Eskolako arrakastaren sustapena

Zailtasun sozialak dituzten umeen eskola arrakasta sustatu dugu, batzar hauetan: Bilbon, Enkarterrin, Gernikan, Nerbioi Haranean, Uribealdean eta Arratialedean. Bertan, 9.000 jar-

duera baino gehiago egin dituzte eta ia 125 pertsonak hartu dute parte.

Arrakastaren Sustapena Gazteekin

GGGtik hezkuntza integralaren aldeko apustua egiten dugu, baina ez umeen eta nerabeen artean bakarrik. Hori dela eta, 2017. urte honetan ASG-PEJ proiektua jarri dugu martxan, eskola orduetatik kanpoko klaseen bitartez, gazteei laguntza emateko derrigorrezkoa ez den hezkuntzan (unibertsitatea, batxilergoa, erdi mailako eta goi mailako graduak...).

Cibercaixa - Umeak ospitalean

Entretanimendurako unea ospitalean dauden umeei, nerabeei eta gazteei. Ospitalizazioaren eragina murrizten saiatzen gara txikiengana eta senideengana. Guztira, 3.791 pertsonak baino gehiagok jaso dute arreta.





PRESTAKUNTZA

GGGk kalitatezko esku hartzeen aldeko apustua egiten du. Horregatik, garrantzia ematen dio egunero-egunero jarduerak programatzen, gauzatzen eta ebaluatzen dituzten boluntarioen prestakuntzari.

GGGren Denbora Libreko Eskolak gazteria sustatzea du helburu. Horretarako, ezagutzak eta gaitasunak garatzen dituzte, aisialdian modu aktiboan eta eraginkorrean esku har dezaten gizarte, hezkuntza eta animazio arloko proiektuetan, aldi berean esperientziak trukatzeko espazioa sortuz.

2017an, GGGren prestakuntza ibilbidearen 9 prestakuntza espezifikoko gauzatu ziren. 118 boluntariok eman zuten ize-na eta guztira 730 eskola ordu baino gehiago eman dituzte.

PARTAIDETZA

PINEO - Aisia eta denbora libre

Ibilbide ludikoa eta hezitzailea eskaini diegu, Gazteen Gurutze Gorriaren bitartez, euren inguruan gizarte eraldatzeko interesa erakutsi duten 200 ume, nerabe eta gazte baino gehiagori.

Guztira, 6.897 jarduera egin dira, beste behin ere antolatu diren hiriko udalekuak barne.

Boluntario gazteen partaidetza

Jardueren eta topaketen antolatzaile eta partaide izan gara, boluntario guztien inplikazioa dinamizatzeko eta sustatzeko asmoz. Izan ere, boluntarioek bakearen, berdintasunaren eta errespetuaren kultura jasotzen eta bultzatzen dute parte hartuta.

- EKIN topaketa.
- Trebatuz topaketa.
- Actúa topaketa.
- Lidergo foroak.
- Udako eskola.
- Udalekuak.
- PINEO Topaketa.



SENTSIBILIZAZIOA

2017an, informatzeko eta sentsibilizatzeko 147 jarduera eginda, 4.483 pertsona sentsibilizatu dira gai hauen inguruan:

- Hezkuntza giza eskubideen eta haurren eskubideen arloan.
- Kulturarteko hezkuntza. Aniztasuna dugu aukerarik onena.
- Ingurumenari buruz informazioa eta sentsibilizazioa.
- Jolas hezigarriak.
- HIESaren eta beste gaixotasun batzuen prebentzioa eta hezkuntza.
- Genero indarkeriaren aurreko sentsibilizazioa eta prebentzioa.
- Hezkidetzeta eta heziketa ez sexista.
- ESIE (Larrialdietarako sentsibilizazio eta informazio ekipoa).
- Hezkuntza afektibo-sexuala.
- Drogen kontsumoaren prebentzioa.
- Indarkeriazko jokabideen prebentzioa.
- Komunitate prebentzioa.

PROIEKTUAK PROGRAMAZ PROGRAMA	EGINDAKO JARDUERAK	PARTAIDE KOPURUA
ESKU-HARTZEA ETA GIZARTERATZEA	14.967 jarduera	6.794 partaide
Umeak ospitalean eta Cibercaixa	315	3.791
Jostailu hezigarriak	2.482	2.387
Beste proiektu batzuk	12.170	616
PARTAIDETZA	6.838 jarduera	196 partaide
PINEO	5.449	90
Aisia eta denbora librea	1.389	106
SENTSIBILIZAZIOA ETA PRESTAKUNTZA	147 jarduera	4.483 partaide
Hezkuntza afektibo-sexuala	3	525
Indarkeriazko jokabideen prebentzioa	54	462
Drogen kontsumoaren prebentzioa	24	182
Kultur Aniztasuna	21	880
Komunitate prebentzioa	36	2.138
Beste proiektu batzuk	9	296
PRESTAKUNTZA	9 prestakuntza	118 pertsona prestatu
PROGRAMA GUZTIAK	22.011 JARDUERA	11.591 PARTAIDE



NAZIOARTEKO LANKIDETZA

Zaurgarritasun eta bazterketa egoeran dauden pertsonen aldeko konpromisoaren kanpo proiektzioa.



...

2017an gauzatutako Garapenerako Lankidetzak Proiektuak

- **Gaixotasunen prebentzioa 5 urtetik beherako umeengan Punoko Lurraldeko bi komunitatetan (PERU):** Portugaletako Udala.
- **Markalako eta Nionako Osasun Barrutietan (MALI) bizi diren Neskatoen eta Emakumeen Sexu eta Ugalketa Eskubideen babesa:** Euskadiko Gurutze Gorriaren Lankidetzak Funtsa.

2017an gauzatutako Gizarte Laguntza Proiektuak

- **Elikadura Krisiari erantzuna Cunenen (ANGOLA):** Euskadiko Gurutze Gorriaren Lankidetzak Funtsa.
- **Zaurgarritasun egoeran dauden emakume siriarrak, palestinarrei eta Siriako gatazka dela eta bertara etorritakoei laguntza obstetrikoa eta ginekologikoa. IV. fasea (LIBANO):** Bizkaiko Foru Aldundia Eta Euskadiko Gurutze Gorriaren Lankidetzak Funtsa - Justifikazioa.
- **Giza Laguntzako beste jarduerak batzuk:**
 - Urtarrila - Apirila: Arabierazko ordezkari itzultzaile eta kulturarteko bitartekaria, Grezian hedatutako Oinarriko Osasun Zaintzen Larrialdiko Erantzun Unitateari laguntzeko, Europako Migrazio Krisialdian operazioarengatik.
 - Iraila: Telekomunikazio eta Informazio Sistema ordezkari espezialista, Ameriketako Gurutze Gorriaren Telekomunikazioen Larrialdiko Erantzun Unitateari laguntzeko, Irma eta María urakanak Puerto Ricotik igaro ondoren.

Garapenerako hezkuntzaren arloko jarduerak, 2017an egindakoak

- **Erakusketa:** Hurrengo geltokia: etorkizuna Bilboko Metroaren hainbat geltokitan, maiatzean eta ekainean.



- Prestakuntza saioak ikastetxeetan:

- "Gurutze Gorriaren Logistika Humanitaria eta Hondamendien Kudeaketa" urtarillaren 5ean Santurtziko Rekord autosekolan, Osasun Garraioko Ziurtagiriaren ikasleentzat.
- "Gurutze Gorriaren Hondamendien Kudeaketa" apirilaren 7an eta azaroaren 10ean Santurtziko San José de Calasanz, Osasun Garraioko Ziurtagiriaren eta Biktima Anitzeko Jazoeren Ziurtagiriaren ikasleentzat.
- **Hitzaldia:** "Esku-hartzea Irma eta Maria Urakanek Puerto Ricon eragindako Larrialdian eta Greziako Errefuxiatuen Esparruetan" abenduaren 4an Tartanga LHZan.
- **Hitzaldia:** "Esku-hartzea Irma eta Maria Urakanek Puerto Ricon eragindako Larrialdian" abenduaren 15ean Boticazar BHIan.

NORK EGITEN DU?

-





BOLUNTARIOEK, LANGILEEK, PARTAIDETZAK ETA TOKIKO GARAPENAK

Gurutze Gorriaren indarra bere boluntarioetan dago.

...

Konpromisoa eta prestakuntza dituzten boluntarioak Gurutze Gorriaren funtsezko zutabeak dira: eurak dira lan egiten dutenak pertsona nagusiek ahalik eta isolamendu gutxien jasan dezaten, istripuetako biktimei arreta eskaintzen dietenak eta erreskateetan parte hartzen dutenak, gazteak balioetan hezten dituztenak, ospitaletan gaixorik dauden umeekin jolasten direnak, egoera zaugarrian dauden pertsonen gizarteratzean eta laneratzean laguntzen dutenak... Hau da, pertsoneri gertuko ingurunetik erantzunak ematen

dizkiete, auzoetan eta erkidegoetan dugun presentzia finkatuz, erkidego ikuspegiarekin lan eginez eta gertutasuna gure jarduketaren agertoki bilakatuz.

Boluntarioen eta Parte hartzearen Plan honen kudeaketaren faseak garatzen dituzten pertsona boluntarioez zein langileez osatuta dagoen **Boluntarioen Arreta Puntua** dago, eta gainera, Informazio eta Laguntza Puntu gisa ere burutzen ditu funtzioak.



47






BIZKAIKO BOLUNTARIOAK

10.836



BOLUNTARIOAREN SOSLAIA





BOLUNTARIOEI ARRETA ESKAITZEKO PUNTUA

2017. urtean, Boluntarioen Arreta Puntuak zuzeneko 3.825 arreta ekintza bideratu dizkie Erakundeko boluntarioei, bazkideei, erabiltzaileei eta ikasleei, eta baita Gurutze Gorriak


Bizkaian eskaintzen dituen baliabideen edo/eta zerbitzuen inguruko informazioa eskatu duten pertsonen ere.

URTEKO ARRETA GUZTIRA

Guztira **3.825** Hileko batez bestekoa **318,75**



49





BOLUNTARIOEN AUTONOMIA MAILAKO IV. TOPAKETA


Abenduaren 2an Gurutze Gorriaren Boluntarioen Autonomia mailako IV. Topaketa egin zen Gasteizen, 383 boluntarioen presentziarekin.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren ordezkariak, ekintza boluntarioari sail guztiak ordezkatu zituzten 173 boluntario izan ziren. Gehienak Pertsona Nagusiei zuzendutako programakoak, Muturreko Zaurgarritasun egoeran dauden kolektiboetako Arreta eskaintzekoak, Sorospen eta Larrialdietakoak eta Gazteriaren Gurutze Gorrikoak izan ziren.

Jardunaldiaren barruan boluntarioen lanari zuzendutako banakako 15 aintzatespen egin ziren, eta baita taldekako 4 aintzatespen ere: Gazteriaren Gurutze Gorriari, Larrialdietan Berehalako Erantzuna emateko Ekipoei, Etxerik gabeko Pertsonetako eskaintzen zaien Arretari eta Lehen Harrera proiektuari.



LANTALDEA 2017




LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2017AN (hondartza barik)




LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2017AN (hondartzekin)



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2017AN PLAN ETA ZERBITZU BAKOITZEKO (hondartza barik)



LANTALDEKO PERTSONA KOPURU OSOA 2017AN ASANBLADA BAKOITZEKO (hondartza barik)



ZELAN EGITEN DUGU?

-





BALIABIDEAK

Ekipamendu materialak jarduera gauzatzeko.

...



ANBULANTZIAK | 17

- OBE (Oinarrizko Bizi Euskarri) Anbulantziak | 12
- BEA (Bizi Euskarri Aurreratu) Anbulantziak | 5



BIKTIMEN SAILKAPENERAKO ERIE KAMIOIA | 1



OSASUN ZERBITZUEN KAMIOIA | 1



ATOIAK | 3

- Biktimen sailkapenerako ERIE atoaia | 1
- Itsasontziaren atoaia | 2



AUTOMOBILAK | 9

- Eragiketa buruaren ibilgailua | 1
- GNC hurbilketa ibilgailua | 2
- Hurbilketa ibilgailu hibridoa | 1
- Hurbilketa ibilgailua | 5



GARRAIO EGOKITURAKO IBILGAILUA | 16

- GLC garraio egokituko ibilgailua | 2
- Garraio egokituko ibilgailua | 14



OSASUN POSTU AURRERATUETAKO IBILGAILUAK ETA OKUPAZIOA | 6



FURGOI MISTOAK LARRIALDIETARAKO ETA GIZA LAGUNTZARAKO | 5



LUR OROTAKOAK | 13

- Itsasoko erie Pick Up-a lur orotako ibilgailua | 1
- Itsasoko erie furgua lur orotako ibilgailua | 1
- Pick Up-a lur orotako ibilgailua larrialdietarako eta giza laguntzarako | 1
- PSL Pick Up-a lur orotako ibilgailua | 1
- Lur orotakoa – Mendiko taldeak | 3
- Lur orotakoa Mendi taldeetako Pick Up-a | 1
- Lur orotakoa Itsasoko Salbamendurako eta Hondartzetarako laguntza | 5



ITSASONTZIAK | 35

- AB maila | 2
- B maila | 8
- C maila aurreratu | 4
- C maila | 11
- C maila (barruko urak) | 7
- Wave Boat - Kaskoa itsasoko mota | 3



ERRESKATEKO ITSASOKO MOTOAK | 12



ERRESKATEKO QUADAK | 4



ERRESKATEKO BUGGYA | 2



KOMUNIKAZIOA ETA IRUDIA

Zorroztasuna eta informazio gardentasuna Gurutze Gorriaren jarduera gizartera hurbiltzeko, eragin mediatikoen bitartez.

...

Bizkaiko Gurutze Gorriak Erakundearen printzipioekin eta balioekin bat etorriko den komunikazio politikaren aldeko apustua egiten du.

Bizkaiko Gurutze Gorriaren jarduera ezagutzeko zenbait kanal propio erabiltzen dira, www.cruzrojabizkaia.org eta www.institutocruzrojabizkaia.org webguneak, adibidez. Sare sozialetako soslaiak ere lantzen dira: Facebook, Twitter, Youtube, Flickr eta Instagram. Erabiltzaileekin elkarrekin gehien duten soslaiak Facebook 7.003 "atsegin dut"-ekin eta 5.534 jarraitzaile dituen Twitter dira. Pertsona edo marka batek Interneten duen eragina 1etik 100era neurtzen duen Klout indizeak 68 eman zuen.

Halaber, harreman estua dugu erakundeekin eta komunikabideekin. Helburua, Bizkaiko Gurutze Gorriaren goiburua- ren eta jardueraren bozgorailu gisa arituko diren zenbait eragilerekin lankidetzarako sinergia ezartzea da.

2017an 1.333 eragin mediatiko egon dira, horietatik 709 online agerpenak izan dira, 417 albiste argitaratu dira prentsan, 148 esku-hartze irratian, 55 telebistan eta 3 publizitate intsertzio. 54 prentsa ohar bidali dira, eta 7 prentsaurreko egin dira: sorosleak aukeratzeko proba, Urrearen Zozketa, 2016ko jarduera txostenaren aurkezpena, elikagaien banaketa Gobernu Ordezkaritzarekin, "Uda honetan maite ezazu zure burua" kanpaina, Banderatxoaren eguna eta jostailu kanpaina.

Hondartzetako komunikazio alorrean, bidalitako 122 prentsa deialdiak eta hondartzen egoerari eta banderei buruzko informazioa emateko izandako irratiko 714 esku-hartzeak azpimarratu behar dira.

Gure eskerrona adierazi nahi diegu komunikabideei eta Bizkaiko Gurutze Gorriaren jarduerak hedatzeko komunikazio ekintzetan laguntzen duten gainerako erakunde guztiak.

* Ematen diren datu guztiak 2017ko abenduok dira.

KOMUNIKAZIOA

1.333 eragin mediatiko

57



ONLINE
709 Albiste



PRENTSA
417 Albiste



IRRATIA
148 Albiste



TB
55 Albiste



7.003 Atsegin dut

www.facebook.com/cruzrojabizkaia



5.534 Jarraitzaile

[@cruzrojabizkaia](https://twitter.com/cruzrojabizkaia)



731 Jarraitzaile

www.youtube.com/user/cruzrojabizkaia



68 Jarraitzaile

www.flickr.com/photos/cruzrojabizkaia/sets



1.794 Jarraitzaile

www.instagram.com/cruzrojabizkaia

ZELAN FINANTZATZEN DA?

-





BAZKIDEAK

Elkartasuna handiago egiten duten 24.084 bazkide Bizkaian.

...

Pertsona askoren bizimodua ez litzateke berbera izango Gurutze Gorriaren bazkideen eta emaileen ekarpen barik.


Bizkaiko Gurutze Gorriak 24.084 bazkiderekin itxi du 2017. urtea. Aurreko urtearekin alderatuta % 2,86ko hazkundera erakusten du horrek. 2011tik bazkide kopuruak etengabe egin du gora, krisia hor dagoen arren.

BAZKIDEEN EBOLUZIOA

24.084

61

GUZTIRA	GIZONAK	EMAK.	ENPRESAK
21.930	8.710	12.654	566
23.414	9.177	13.654	583
↓ +%2,86	↓ +%2,31	↓ +%3,38	↓ -%0,51
24.084	9.389	14.115	580





FUNTSEN ETA ALIANTZEN ERAKARPENA

783 enpresa eta erakunde egoera zaugarrienean daudenekin lankidetzan.

...

2017KO URREAREN ZOZKETA

Gurutze Gorriaren Urrearen zozketa funtsezko formula da gure Erakundearen, gure gizarteko talde zaugarrienei laguntzeko. 35 urte baino gehiagoko historia duen zozketaren bitartez, Bizkaiko Gurutze Gorriak laguntzeko beste bide bat eskaintzen du, txartelak erosiz. Eskerrik asko Munduko zozketarik solidarioenari BAI esategatik.

639.231€ salduta 2017ko Urrearen Zozketan.



BANDERATXOAREN EGUNA

Gure kaleetan ohikoa da jada, urteko azken egunetan Gurutze Gorriaren Banderatxoaren Eguna tradizionala. Ezkerraldeko, Bilboko eta Getxoko kaleetan mahaiak jartzen dituzte eta bertan egoten dira Erakundeko boluntarioak, itsulapikoak eskuan dituztela, herritarren laguntza eskatuz.

Edizio honetan bildutakoaren jomuga, Gurutze Gorriak zaugarritasun egoeran dauden umeen alde egin duen lana izan da.

Uribe Aldean bildutakoa	Bilbon eta Ezkerraldean bildutakoa
6.918,60 €	26.921,22 €





BESTE LAGUNTZA BATZUK

Bigarren urtez jarraian, Bilboko Gurutze Gorriko Pausoka programako boluntarioek, San Balentin eguna bezalako egun garrantzitsuan zaugarritasun egoeran dauden pertsona nagusiez gogoratzearen garrantziaz sentsibilizatu nahi izan dituzte bilbotarrak, "Enamórate+Maitemindu" kanpainarekin.



Gure eskerrik beroenak EHUKo Ostalaritza Eskolari eta Bilboko Goi Ostalaritza Eskolari, egun horretan oinezkoei eman zitzaizkien gozokiak emateagatik. Pertsona nagusien programara bideratu diren 1.306,17 € bildu ziren.

BIZKAIKO GURUTZE GORRIA ZIFRATAN

-






KUDEAKETA EKONOMIKOA

Bizkaiko Gurutze Gorria zifratan.

...

GASTUAK JARDUERA BAKOITZEKO	2017	%	ERABILTZAILEAK	E/ ERABILTZAILEA
Gazteriaren Gurutze Gorria	160.056 €	1,31	11.457	13,97 €
Boluntarioak	163.868 €	1,35	2.353	70 €
Prestakuntza institutua	1.805.465 €	14,83	7.935	228 €
Lanbide Heziketako Ikastetxea	1.442.801 €	11,85	335	4.307 €
Prestakuntza eta Denbora Libreko Eskola	362.665 €	2,98	7.600	48 €
Gizarteratzea eta Enplegua	4.048.175 €	33,26	43.354	93 €
Sorospenak eta Larrialdiak	3.346.781 €	27,49	15.996	209 €
Funtsen kudeaketa, administrazioa eta bilketa	2.314.513 €	19,01		
Nazioarteko lankidetzeta eta Elkartasun Funtza	278.279 €	2,29	7.198	38,66 €
Komunikazioa	55.717 €	0,46		
Guztira	12.172.854 €	100,00	85.940	141,64 €

67



%1,31

Gazteriaren Gurutze Gorria

%1,35

Boluntarioak

%14,83

Prestakuntza institutua

%33,26

Gizarteratzea eta Enplegua

%27,49

Sorospenak eta Larrialdiak

%19,01

Funtsen kudeaketa,
administrazioa eta bilketa

%2,29

Nazioarteko lankidetzeta
eta Elkartasun Funtza

%0,46

Komunikazioa



FINANTZAKETA ITURRIAK	2017	%
Zerbitzuak eskaintzea	3.108.641 €	25,35
Funtsak jasotzea*	3.344.751 €	27,27
Diru-laguntzak eta dohaintza pribatuak	4.848.844 €	39,54
Beste kudeaketa sarrera batzuk	201.220 €	1,64
Finantzazkoak	567.732 €	4,63
Kapital diru-laguntzak eta ez ohikoak	193.293 €	1,58
Guztira	12.264.482 €	100,00

*FUNTSAK JASOTZEA	2017	%
Urreraren zozketa	680.148 €	20
Bazkideak	2.547.339 €	76
Kuestazioa	35.457 €	1
Bestelakoak	81.808 €	3
Guztira	3.344.752 €	100

EMAITZA	91.628 €
----------------	-----------------



%25,35

Zerbitzuak eskaintzea

%27,27

Funtsak jasotzea

%39,54

Diru-laguntzak eta dohaintza pribatuak

%1,64

Beste kudeaketa sarrera batzuk


%4,63

Beste kudeaketa sarrera batzuk

%1,58

Kapital diru-laguntzak eta ez ohikoak

INBERTSIOAK	2017	%
Ibilgailuak eta ontziak	296.637 €	56
Obrak eta zaharberritze lanak	110.074 €	21
Ekipo informatikoak eta bulegokoak	92.877 €	17
Materialak eta tresnak	33.213 €	6
Guztira	532.801 €	% 100





JARDUERAREN DATUAK


412.464 zerbitzu eginda 85.940 partaide edo erabiltzailerentzat 2017an.

...

Partaideak eta zerbitzu guztiak 2017	Partaide erabiltzaileak	Zerbitzuak	Zerbitzuak/pertsona
Gizarte esku hartzea	42.137	364.325	8,65
Pertsona nagusiak	4.763	103.062	21,64
Urritasuna duten pertsonak	227	21.941	96,66
Gertutasuneko metodologia	12.609	47.636	3,78
Etorkinak	2.157	19.542	9,06
Enplegua	1.142	83.146	72,81
Errefuxiatuak	245	17.435	71,16
Umeak eta familia	145	1.647	11,36
Gabonetako Jostailu kanpaina	2.386	5.502	2,31
Erkidegoaren aldeko lanak	50	1.275	25,50
Pobrezia eta gizarte bazterketaren kontrako borroka	18.343	62.805	3,42
Denbora bankuak	35	56	1,60
Tele-asistentzia mugikorra genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat	35	278	7,94
Nazioarteko lankidetzak - Sentsibilizazioa	7.198	19	0,00
Ingurumena	1.217	21	0,02
Prestakuntza institutua	7.935	771	0,10
Lanbide Heziketa	335	14	0,04
Profesionaltasun ziurtagiriak, titulu propioak	7.600	757	0,10
Gazteriaren Gurutze Gorria	11.457	24.468	2,14
Itsasoko Salbamendua, Hondartzetako Salbamendua, Sorospenak eta larrialdiak	8.909	9.246	1,04
Larrialdietarako berehalako erantzuneko taldea (ERIES)	439	39	0,09
Prebentziozkoak	884	1.402	1,59
Hondartzetako estaldura	7.242	6.959	0,96
Garraio sozio-sanitarioa	188	188	1,00
Itsasoko Salbamendua	156	658	4,22
Osasun Plana	7.087	13.614	1,92
GUZTIRA	85.940	412.464	4,80




ARRETA JASO DUEN BIZTANLERIA




72


GIZARTE ESKU HARTZEA





ERABILTZAILEAK URTEAN



ZERBITZUAK PERTSONAKO



ARRETA PLANEN ARABERA 2017



KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK





KALITATE ETA INGURUMEN ZIURTAGIRIAK

Hordartzetako sorospen eta salbamendu zerbitzurako UNE-en ISO 9001:2008 kalitate-sistema eta ingurumenaren UNE-en ISO 14001:2004 ziurtagiria.



GKE Benchmarking kudeaketaren gardentasunagatiko ziurtagiria:

- **9 alderdi** aztertzen dira: Zuzendaritza Batzordea, Esparru Estrategikoa, Gerentziaren Zintzotasuna, Komunikazioa eta Irudi Publikoa, Giza Baliabideak, Finantza-gerentzia eta Funtsen Kudeaketa, Eragiketak, Emaitzak eta Etengabeko Hobekuntza).

SGS ziurtagiriaren berriztapena.



VERIFIED
NGO Benchmarking
A voluntary system measuring
Accountability to Stakeholders
and Compliance with Best Practices
www.sgs.com/ngo

AENOR kalitate-ziurtagiriak:

- Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeentzako telelaguntza mugikorra.
- Heziketa.



ER-0385/2007

Ezarrিতako beste kalitate-sistema batzuk:

- Borondatezko lanaren kudeaketa.
- Interlabora Sarea, etorkinentzako enplegua.